

Elkartasuna herrien samurtasuna da

Gioconda Belli

Egun zailak eta, gehienentzat, ezezagunak bizitzea tokatzen ari zaigu. Kezkak eta, batzuetan, antsietateak, kezkatzeko eta arreta gure ingurune hurbilenean, familia eta lagunetan bakarrik jartzeko tentazioaren aurrean jartzen gaitu; egun hauetan ahul, hauskor, eta zentzuzko beldurrez sentitzen garenean, bizitzea eta begiestea tokatzen zaigun tragedia, ez genuen uste hain aurreratua den gure gizartean, bere buruaz hain seguru dagoena, eta denbora izan ezik, frenorik gabe aurrera egiteko gai.

Ezin ditugu gure gabeziak, ez gure mina, ezta sufrimendua gutxitu; ezin dugu pentsatu ere egin, hau ere, "larrialdi" iragankorra dela, eta hasierako laukira itzuliko garela, aurreko egoerara. Baina ez diogu utzi nahi gure mugetatik haratago begiratzeari ere. Pentsa dezagun, halaber, adiskidetasun eta lan-harremanak ditugun kutsatzeak eragindako beste herrialde batzuetan. Birus honi aurre egiteko gaitasun ekonomiko edo sozialik ez duten herrialde eta tokiak, ez dezagun ahantzi, birusak mundu mailako hedadura duela.

Hala eta guztiz ere, gaur, inoiz baino gehiago, solidaritatea, enpatia eta hurbiltasuna erakutsi behar diegu herrialde kaltetuagoei. Herrien arteko elkartasuna, hurbiltasuna eta adiskidetasuna indartzeko unea dela uste dugu. Ez dezagun ahaztu pandemia honek herrialdeen arteko desberdintasuna areagotu egingo duela.

CARITAS GIPUZKOA ez gara pertsonen sufrimendutik at bizi, edozein lekutan daudela ere, sufritzen dutenagatik.

Gure elizbarrutiko Caritas, Kenyan, El Salvadorren eta Guatemalan babesten ari den hiru elkartasun adibide aurkezten dizkizuegu. Laguntza jasotzen duten pertsonen bizitza hobetzen laguntzen duten proiektuak. Azkenaldian egiten ari garen benetako elkartasunaren adibide dira. Proiektu horiek, Misio eta Lankidetzako Elizbarrutiko Zerbitzua aurrera eramaten ari diren beste hainbatekin batera, gure mugetatik haratago eta gure behar eta errealitateetatik haratago egindako lanaren erakusgarri dira.

Horretan jarraituko dugu, zaurgarrienei begira. Herrialde askok, guk baino gaitasun gutxiago dutenek, ez dute batere ondo pasako, ez dute datorren horri aurre egiteko beharrezko baliabiderik, eta horregatik, beldurrari aurre egiten jarraitu behar dugu. Bizitza berriro loratuko da, eta itxaropena nagusituko du.





Sustapenerako bekak (Nairobi, Kenia)

Proiektu honek Nairobiko aldirietako gazteei lagundu nahi die, ikasi eta lan munduan erabat murgildu daitezten. Beka, baliabiderik ez duten neska gazteei dago zuzendua, asko umezurtzak, edota haien amek eskean aritzeaz gain beste bizi-aukerarik ematerik ez dutenei.

Gaur egun, CARITAS GIPUZKOA 150 ikasleri bekak ematen ari da, ikasketak bi hezkuntza-aukera hauetan egin ditzaten:

Donum Deiko ahizpen kongregazioko sukaldaritza eta ostalaritza eskola. Ikastetxean, 80 neskek, sukaldaritzan eta ostalaritzako denden kudeaketan prestakuntza jasotzen dute. Etorkizunean, jatetxeetan, hoteletan eta abarretan negozioak sustatzeko edo lana bilatzeko balioko die. CARITAS GIPUZKOAk 50.000 €-ko diru ekarpena egiten du urtean.

- Quebeceko misiolariak kudeatutako ile-apainketa eta estetikako lanbide heziketako ikastetxea. Emaiza oso positiboa da. Prestakuntza hasten duten neska gehienek, arrakastaz amaitzen dute. Gainera, enplegu duina lortzen dute, eta, horri esker, bizitza autonomoa garatu ahal izaten dute, bai emakumeei bai haien familiei.

CARITAS GIPUZKOAk 40.000 €-ko diru ekarpena egiten ditu urtean.

Etxebizitzak nekazaritza eremuetan (Tacuba, El Salvador).

Proiektu honen helburua da, etxebizitza duinak eraikiz, muturreko pobrezian dauden familien bizigarritasun baldintzak hobetzea.

Tacuba udalerriko nekazal-eremuak hainbat fenomeno natural jasan ditu –urakanak eta lurrikarak–, eta ondorioz, ahuldu egin dituzte hango etxebizitza eskasak. Eguraldi txarrak, inguru horretan bizi diren pertsonen osasun-egoera baldintzatzen du; bereziki, neska-mutil eta adinekoena.



Komunitateek ez dute inolako laguntzarik jaso –tokikoa, nazionala edo nazioartekoa– 2001eko lurrikaraz geroztik, zeinak etxe gehienak suntsitu zituen. Helburua, 40 etxebizitza eraikitzea da gaur egungo adobezkoak ordezkatzeko.

CARITAS GIPUZKOAK, 80.000 euro jarriko ditu urtero, 2019-20 eta 2020-21 urteetan zehar.

Edateko ura (San Marcos, Guatemala)

San Pablo udalerrian, 100 familia baino gehiagok ez zuten urik euren etxeetan. Egoera horrek bere garapen pertsonal, familiar eta komunitarioari eragiten zion, eta ura eskura ez izatearekin lotutako gaixotasunak, infekzio gastrointestinalak, larruazaleko gaixotasunak eta desnutrizioa, jasateko joera handiagoa zuten.

Egoera are gehiago korapilatzen zen lehorre-garaian. Herritarrak hornitzen dituen iturriak, nabarmen murrizten du bere emaria, eta populazioaren zati handi bat urik gabe geratzen da. Egoera honek familia osoari eragiten dio, baina bereziki emakumeei eta haurrei, erreka batetik ura garraiatzen dutelako, edota arropa garbitzera ibaira joaten direlako.

Misiolari Salvatorianoak, ur-hornidurarako proiektu bat jarri dute martxan, 115 familiak edateko ura izan dezaten.

CARITAS GIPUZKOAK, arrakasta handia izan duen proiektu honi, 55.000 € diru laguntza eman dio.